

ZAPATUETAKO TAILERRAK (HIP-HOP KALE DANTZAK) 2012



Eibarko Udalak kale dantzak (HIP-HOP) ikastaroa antolatu du euskaraz mintzatzeko ondo pasatzen dugun bitartean

Tramitatzailea: Euskara-Kultura

Hartzaileak: lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrentzat

Ordutegia: Bi talde egongo dira. 16:30etatik 17:30etara eta 17:30etatik 18:30etara. (ordutegia matrikula orrian aukeratu)

Ikastaroaren prezioa: 10€.

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

Eskatzailearen eta dagokionean ordezkariaren **NANaren, IFKaren...** edo balio bereko dokumenturen baten kopia. **NAN, IFK...** dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Legezko ordezkapenaren kasuan, eskaera izenpetzen duenaren ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.net), **urriaren 8an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikulak aurkezten doazen hurrenkeraren arabera onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: urriaren 8an 18:00etan Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Bi zerrenda egongo dira, ordutegi edo txanda bakoitzeko bat. Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da. Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **urriaren 11tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldearen ikasle-kopuruz osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 437